



TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Larunbata  
2010-02-13

VIII. URTEA 1927. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA



WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



## Tolosako kaleetako hutsunea eskualdeko herriek bete dute

**OSTIRAL MEHEA** Amezketan, Asteasun, Adunan eta Zizurkilen, besteak beste, mozorroturik irten ziren haurrak

**TOLOSA** Indarrak gordetzeko eguna izan zen atzokoak, hala ere, xexenetan gaztetxo ugari elkartu ziren 4



Abastosen hainbat boluntario dabilta lanean, Elkartasun Sagardotegian. A. I.

### Ehun lagun inguru ibiliko dira lanean «euskal presoek eskubideen» alde

**ELKARTASUNA** Tolosaren erdian, Abastosen, ohi bezala Sagardotegia zabaldu dute Inauterietan 5



Asteasuko eta Amezketako haurrak ere mozorrotu ziren Ostiral Mehean. E. MAIZ-N. LATABURU

### Komun publikoen aurkako erasoak «oso ohikoak» dira

**VILLABONA** Udalak txikizioak salatzeaz gain erasotzaileak hausnarketara gonbidatu ditu 7



## K Komikia

## NANDO (II)



## «Inauterietatik Diana gustatzen zait gehien, eta parte hartzen dut ahal dudan guztietan»

JUAN KARLOS AMIANO » Inauterizalea

**Tolosa** » Inauteriak bi modu desberdinetan bizi izan ditu: jaietan murgilduz eta dendan lanean; asko aldatu direla dio.

INIGO TERRADILLOS

Tolosar askoren moduan Inauteriak gertutik bizitzen ditu Juan Karlos Amianok (Tolosa, 1955). Baina, festaz gain, lana ere bilakatzeko dira berarentzat, Amiano denda Inauterietako osagaiez betetzen baita jaien aurreko asteetan. Ondo ezagutzen ditu, beraz, festa berezi hauek, eta bere ustetan «asko aldatu dira, eta orain jende gehiagok hartzen du parte».

**Tolosar zaren heinean Inauterizale ere izango zara, noski.**

Bai, baina ez lehen bezala. Izan ere, urteek aurrera egin ahala galduz doa hori. Dena den, horrek ez du esan nahi gaur egun ere Inauterietan gozatzen ez dudarik. Askok gustatzen zaizkit, baina ez ditut lehen bezain beste bizitzen.

**Asko bizitutakoa zara orduan.**

Bai. Esaterako, lehen Gure Kaiola elkarteak konpartsan irtetzen nintzen. 25 urtez egon naiz konpartsan ateratzen. Hori Astelenitan izaten zen, eta ederki igarotzen gure eguna.

**Gaur egun ere Inauterietan murgiltzen zara. Zer da galdu ezin duzuna?**

Diana da Inauterietatik gehien gustatzen zaidana, eta ahal dudan guztietan ez dut hutsik egiten. Os-

**«Lehen jende asko ikustera joaten zen, eta orain ia denek nahi dute parte hartu jaietan»**

tegun Gizen eguna ere oso polita da, baina, aukeran, Dianarekin geratzen naiz.

**Zein da gogoratzen duzun mozorrorik bereziena?**

Gogoan dut Inauterietako nire lehen mozorroa. Emakumez jantzi nintzen, munduko emakume ikusgarrienaz (*la mujer mas explo-*



*siva del mundo*), hain zuzen. Badut beste bat ere gogoan; Gure Kaiola elkarteak indiarrez mozorrotu ginen urte batean, eta ni indiar emakumez jantzi nintzen, oso berezia eta barregarria izan zen.

**Zertan aldatu dira Inauteriak urteetan zehar?**

Nire ustez asko aldatu dira. Esaterako, lehen ez zen hainbeste jende mozorrotzen, eta jende asko gerturatzeko zen soilik ikuskizunak ikustera, parte hartu gabe. Gaur egun, ordea, guztiek hartu nahi dute parte, eta ia denek mozorrotzen dira. Gainera, mozorrotzen ez denek ere badu jantzi berezia, hau da, txilaba. Parte-hartzearena ere nabaritzen da beste hainbat gauzetan, Dianan, esaterako. Azken urteetan askoz ere jende gehiagok hartu ohi du parte.

**Zer dute Tolosako Inauteriek hain berezi izateko?**

Kalean egiten direla. Hori da Inauteriak berezi egiten dutena kaleko festa direla, herritarrena. Horretaz gain, beste hainbat osagarri edo lagungarri ditu, txarangak esaterako. Txarangen doinuek asko alaitzen dute.

**Dendan ere hainbat bitxikeri ikusiko zenituen.**

Bai, askotan ulertu ere ez ditut egiten esaten dizkidan mozorroak. Bitxiak izaten dira asko. Jendea gero eta azkarrago hasten da mozorro eta prestaketekin.



# Ur saneamenduko lanak bukatuta, karrozek ohiko bidea egingo dute

**Ibilbidea** » Azken bi urtetan San Frantzisko kalean izan diren obrak direla eta, ibilbide ezberdina izan dute.

## ERREDAKZIOA

Azken bi urte hauetako aldaketak alde batera utzi eta aurtun, berriz ere, ohiko ibilbidea egingo dute karroza eta aisialdi taldeek. Konpartsak berriz, herri osoan zehar alde batetik bestera ibiliko dira. Guztiak umore alaiz herriari kolore eta bizia emango diote.

Oso ezagunak egin dira Tolosaldean Ur saneamenduaren kolektorearen obrak. Kontu eta buruhauste askotarako bidea eman dute eta Inauterietan ere ezin falta. Obra hauek zirela eta, karroza eta konpartsen ibilbideak aldatu behar izan zituzten, kale batzuetatik igarotzea ezinezko baitzen. Aurtengo Inauterietako ere horixe zen zalantzetako bat.

Bada, Jai Batzordeak hartutako erabakia izan da, aurtun karroza eta konpartsek ohiko ibilbidea egitea, hau da, 2008. urtera arte zegoena hain zuzen ere. Beraz, Geltoki aldetik edota Gorriti aldetik abiatuko dira eta San Frantzisko pasealekua eta Rondilla kalea gurutzatuko dituzte.

## » KARROZA ETA KONPARTSEN IRTEERAK

### 11:00etatik aurrera

■ **Zaldunita.** Sei karroza Geltoki aldetik eta bost karroza Gorrititik aterako dira kalea zeharkatzeko.

■ **Astelenita.** Tolosa (h)irri kulturala 2010, Casa de baños, Beti gazteak eta Pacha-ran karrozak Gorriti aldetik aterako dira. Euririk egingo ez balu, aisialdi taldeak ere kalean barrena dantzan ibiliko dira.

### Karrozak

■ **15.** Gaixokidetz, El Castillo del Rey Manbo, Batutalo, Igeriketa Sinkronizatuta, Arigato, Greziatik Tolosara, Ambus, Un tal majara, Al loro se busca, Euskovixion, Tolosako marinela, Tolosa (h)irri kulturala 2010, Casa de baños, Beti gazteak eta Pacha-ran.

■ **Aisialdi taldeak.** Astelehenean aterako dira eta eguraldi txarra bada Usabal kiroldegian egingo dute (jende kopuruagatik partaideak bakarrik sartu ahaliko dira).

### 15 karroza eta 300 konpartsa

Aurtengorako 15 karrozek eman dute izena: Gaixokidetz, El Castillo del Rey Manbo, Batutalo, Igeriketa sinkronizatuta, Arigato, Greziatik Tolosara, Ambus, Un tal majara, Al loro se busca, Euskovixion,

## Astelenitan euria eginez gero, sei aisialdi taldeen emanaldiak Usabal kiroldegian izango dira

Tolosako marinela, Tolosa (h)irri kulturala 2010, Casa de baños, Beti gazteak eta Pachar-ran izango dira kalean gora eta kalean behera ibiliko direnak.

Konpartsen artean berriz, 300ek eman dute izena, beraz, mo-zorro eta ideia ezberdinak ez dira faltako Tolosako kaleetan. Hauek, ez dute ibilbide zehatzik, hau da, herri guztian zehar ibiltzeko aukerazaten dute.

15 karrozek berriz, ibilbide zehaztua egingo dute. Gorriti aldetik edota Geltoki ingurutik aterako

## San Frantzisko pasealekua eta Rondilla kalea moztuz erakusleho izango dira


dira. Zaldunita egunean eta Asteartean, karrozak bi zatitan banatuko dira eta hau zozketa bidez egin da. Zaldunita egunean, Geltoki aldetik, Gaixokidetz, Batutalo, Igeriketa sinkronizatuta, Arigato eta Greziatik Tolosara abiatuko dira. Gorriti aldetik berriz, Ambus, Un tal majara, Al loro se busca, Euskovixion eta Tolosako marinela karrozak aterako dira.

### Aisialdi taldeak

Astelenitan berriz, aisialdi talde guztiak, Geltoki aldetik aterako dira eta aisialdi taldeez gain, Tolosa (h)irri kulturala 2010, Casa de baños, Beti gazteak eta Pachar-ran karrozak aterako dira Tolosako kalea zeharkatzera, hauek Gorriti aldetik abiatuko dira.

Astelehenean eguraldi txarra izanez gero, hau da, euria eginez gero, aisialdi taldeen eskaerari erantzuna emanez haien dantzaldiak Usabal kiroldegian burutuko direla erabaki dute. Honek ez dio eragingo ordutegiari, mantendu egingo baita.

Taldeek Tolosako Udalarekin adostu dute eta Usabal Kiroldegira aisialdi taldeetako kideek baino ezin izango dira sartu. Sei aisialdi taldek hartzen dute parte Tolosa-



Karroza eta aisialdi taldeek egingo duten ibilbidea. HITZA



Karroza, konpartsa eta aisialdi taldeak urtero bezala kalean ibiliko dira. ESTIEZEIZA

ko Inauterietan: Txiribitu, Tenteek, Kazkabarra, Atsedena, Kiri-kiño eta San Bernardo.

## Bihartik aurrera karrozen irteerak, Geltoki ingurutik edota Gorriti aldetik izango dira

1.200 lagun inguru biltzen dituzte aisialdi talde guztien artean eta ez da posible izango beste inor bertan sartzea. Eguraldiaren arabera izango denez, Astelenita egu-

nean bertan, goizean goiz hartuko dute erabakia.

Eguraldiak eguraldi, eta nahiz eta elurra, euria edo kazkabarra egin, Tolosako kaleetan ibiltzeko aurten inondik inora ere ez da trabarik izango. Guztientzat izango da lekua; karroza, konpartsa, aisialdi taldeak, norbanakoak, familia... hori bai, bihartik hasi eta aste-artera bitartean, moztorra jantzi gabe ezin izango da gerturatu Tolosako kaleetara. Eta gogoratu, gaur inauteriak izanagatik, Tolosan ez dela moztortzen.

## Iragarki laburrak

### LANA

■ **Emakumea.** Emakumea eskaintzen da arratsalde garbiketako edo umeak zaintzeko, deitu 943 65 02 72 telefono zenbakira.

■ **Bigi garbitasunak.** Alfonbrak, etxeak, bulegoak eta abar garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe: 638 944 604 (Gurutze) edo 695708 271 (Belen).



# Tolosatik kanpo ere bada festa

**Eskoletako jaialdiak** » Ostegun Gizenean ez ezik eskualdeko beste hainbat eskoletan Ostiral Mehean ere ospatzen dituzte euren jaialdiak.

## ERREDAKZIOA

Eskualdeko hainbat herritan egun bat beranduago, Ostiral Mehean, ateratzen dituzte euren mozerroak. Amezketako, Asteasuko, Adunako eta Zizurkilgo eskoletakoek, esaterako, atzo egin zuten Inauterietako festa handia. Irudimena eta aurreko asteetan eskolan landutako mozerroak eta dantzak ziren protagonista nagusiak.

Asteasun, esaterako, Lantzeko Inauteriak ospatu zituzten. Herrian zehar desfilea eta dantza egin zuten eta jarraian, Mielotxin erraldoia erre zuten. Bukatzeko, guztiek merienda izan zuten.

Amezketarrak ez ez ziren atzean geratu eta hotzari eta elurrari aurre eginez mozerroa soinean jantzi eta emanalditxo eskaini zuten herrian. Tartean txakurtxoak, sanferminetako entzierrorako korrikalariak, *punkiak*, tenis jokalariek, estralurtarrak, ... ikusi genituen.

Zizurkilen, herriko eskola guztietako ikasle, irakasle eta gurasoak plazan elkartu ziren. Talde bakoitzak, aurreko egunetan prestatutako emanaldia eskaini zuten.

Adunan ere ikasle, irakasle eta gurasoak elkartuta, dantza, txistak eta antzerkia egin zituzten eta baita merienda ederra ere.

## Ostegun Gizenekoak

Txalburu eskolak herenegun, Ostegun Gizen arratsaldean, egin zuten «zirkoa». *Piztiak* soinketako irakasleekin ordu asko sartu dituzte eta oso lan polita erakutsi zuten. Txikiak pailazoez mozerrotu ziren eta dantza bat egin zuten. Lehen mailatik 6. mailara bitartekoak aldiz pailazoak eta malabaristak izan ziren.

Gurasoek guztiak «zoriondu» nahi izan dituzte, egindako lanarengatik. «*Piztiak* laguntzaile batzuk ere izan zituztela aipatu behar da, hori muntatzen eta laguntzen. Horietakoa bat Ariñe Zapiain izan da eta berak bere ikuskizuna eman zuen oihal batetik zintzilikak», gaineratu dute.

Villabonako Udalak antolatutako konpartsa desfilea ospatu zen eta Jesusen Bihotza eta Dr. Fleming-ek hartu zuten parte. Eguraldi elurtsuarengatik emanaldia Olaederra kiroldegian egin zuten.



Asteasun desfilea eta dantza egin zuten. E. MAIZ



Fleming eta Jesusen Bihotzakoez Villabonako kiroldegian eskaini zuten emanaldia, herenegun. HITZA



Adunan txikiak pirataz jantzita dantzatu zuten. E. MAIZ



Zizurkilgo eskola guztiak plazan elkartu ziren. E. MAIZ



Amezketako txakurtxoak. N.L



Abartzaketara zirkoa heldu zen herenegun. HITZA

Atxik jolas-joko-kirolari!, atxik herriari!



Euskal Herria zazpi lurraldeetako kirolariak lehen mugaria jarri dute Euskal Herria ofizialki ordezkatzeko ekimenen. 2009ko abenduaren 27an, Donostiako belodromoan, bost mila euskal herritarrak baino gehiagok bat egin zuten haiekin. Egin dezagun bat guztiok!



Erosi **DVDa** otsailaren **13an** eta **14an**

berria + = 8€



HARRI-DUNENTZAKO OHARRA:  
Eskaria egiteko, nahikoa izango duzu  
94320 43 45 telefonora deitzea.

AUKERA EZAZU.  
BIZI EUSKARAZ  
**berria**



## ... Bitartean Tolosan, jaia aurrera doa

**OSTIRAL MEHEA** » Egun lasaia izaten da Ostiral Mehea; bezperan egindako parrandaren ondoren atsedean hartzeko trantsizio eguna, hain zuzen. Parrandazaleek, ordea, indarra gordetzen dute egunero-egunero

festan hutsik ez egiteko. Hala, atzokoan zezen plazan gaztetxo ugari bildu ziren, txarangaren doinuez alaiturik, beti ere. Baten batek estualdiren bat ere igaro zuen zezenaren adarrarekin... N.LATASURU



Tolosako Inauteriek irauten duten bitartean Abastosen Elkartasun Sagardotegia egongo da zabalik. Euskal presoei elkartasuna bideratzeko ekimenak hamaikagarren urtea du aurtengoa.

## Sagardotegiaren berotasunean

ASIER IMAZ

**E**lkartasun Sagardotegiak hamaika urte daramatza Inauterian giroa epeltzen. Ostegunetik asteartera zabalik egoten da afaltzeko garaian, igandean berriz bazkariak ere zerbitzatzen dituzte.

Besteak beste, bertan dauden berogailuen goxotasunari esker, Ostegun Gizenean 150 lagun inguru elkartu ziren sagardotegiko menuaren peskizian.

Sagardotegia herritarrek gobernatzen dute zazpi egunetan zehar. Afaltziarrek dena prest eduki dezaten, igandean bazkaltzarrek ere bai, txandak antolatzen dituzte Inauterien aurretik.

Txanda bakoitzean 15 lagun sartzen dira, guztira beraz, 100 boluntario inguru: «Batzuk sukaldeaz arduratzen dira eta besteak zerbitzuaz; ondoren denek garbiketa lanak burutzen dituzte» aipatu dute Elkartasun Sagardotegiko kideek. Muxu truk aritzen al diren galde-tuta, irribarre batekin erantzuten dute: «Horrela da. Gauzak nola dauden ikusita gainera, eskertzekoa da jendeak azaltzen duen borondatea eta lanerako prestutasuna».

«Gauzak nola dauden» ikusteko aukera Ostegun Gizenean bertan eduki zuten; «Txupinazoa bota orduko betikoen, Ertzaintzaren, bisita eduki genuen; Harrelson-en mutilen gisara sartu ziren. Euren legea kontutan hartuta ere guztiz legezkoak ziren aldarrikapen pankarta batzuk kendu zituzten. Zer

esan horrelako gertakarien aurrean? Erabat salagarria da batzuk jaiak izorratzeko azaltzen duten gogoia. Adierazpen askatasuna behar eta nahi dugu, gure eskubidea ere badelako».

### Urtetik urtera sendotzen

Gertakari hauek alde batetara utzita, aldarrikapenak eta elkartasunak bere txokoa finkatu du Abastosen.

Hamaika urte hauetan izerdi franko botabeharizan dute egunearren izaera sendotzeko: «Hasiera kostatzen zen. Gero ordea, jendea ezagutzen joan zen eta askorentzat ohitura bilakatu da Elkartasun Sagardotegiko afaria edo bazkaria. Gustura etortzen da jendea: autorik hartu beharrik ez, herriaren erdi-erdian, janariarekin arazorik ez dugu eduki orain arte eta hotzari aurre egiteko berogailu indartsuak aurkitzen dira. Benetan eskertzen da jendeak ematen duen erantzuna».

Menuari dagokionez, «gutxi gora behera sagardotegikoa» eskaintzen dute: «bakailu tortilla eta txuleta. Gazte jendearentzat edo diruz larri dabilenarentzat saiheskia ere izaten dugu. Postre bezala intxaurrek, gazta eta irasagarria zerbitzatzen ditugu».

Sagardoa Isastegietakoa da eta hiru kupeletan egoten da, bakoitzak inguruko mendiaren izena darama gainera, kokapenaren arabera. Ardozaleek ere bere kupel-txoa aurkituko dute Abastosen, «ardo ona gainera».



Ikasleen afariak tarteko, Ostegun Gizenean ehun lagunetik gora elkartu ziren Elkartasun Sagardotegian. A. IMAZ

Tolosako Txozna Batzordeak bere egitarau propioa antolatu du Inauterietan. Jaiarekin bat eginaz txosnagunea zabalik izango da ondorengo egunetan.

## Txotxaren ondoren, txosnak

**B**oluntarioei atzetik jarraituz batek baino gehiagok txosnetan amaituko du. Herriko hainbat taldek, besteak beste Jatorkinek, AHT Gelditu! Elkarlanak, Sanblazpiko Gazte Asanbladak eta Ikasle Abertzaleek, Euskal Herria plazan antolatu dute jai eremu erraldoia.

Tabernaz gain, Tolosako Txozna Batzordeak Inauterietarako bere egitarau propioa osatu du.



Txiletik etorritakorik ere bazen txosnetan Ostegun Gizenean. A. IMAZ

### Gaur, hilak 13

Txokolatada izango da txosnagunean.

### Bihar, hilak 14

Irekiera 16:00etan izango da. 19:00etan Bonberenea txarangak emanaldia eskainiko du. Ohi bezala, laigoaldian itxiko dute txosna.

### Etzi, hilak 15

Astelentan 16:00etan irekiko dute txosnagunea. Hainbat moztarrotu elkartuko dira bertan.

### Asteartita, hilak 16

Inauterien azken egunetan txosna 18:00etan irekiko dute. Jai bertatik agurtzeko aukera egongo da.



Lanean hasi aurretik dena prest eduki behar da, txuletak barne. A. IMAZ

Euskal Kantuzaleen Elkarteak antolatutako

## 2010 Gipuzkoako HAUR KANTARI JAIALDIAK

Martxoaren 6an, larunbata, 18:00etan  
USURKBA GO Sufegi aretoan

Martxoaren 14an, igandea,  
18:00etan  
URRETU ZUMARRAGAKO Labeaga aretoan

Euskal Kantuzaleen Elkarteak antolatutako  
**JAIALDIETAN PARTE HARTZEKO:**

- ✓ 6-15 urte bitarteko neska-mutirik
- ✓ banaka, binaka edota taldeka, aurkeztu zuen gustuko abestia.

IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA:  
otsailak 26, ostirala

DEITU - IDATZI:  
943-593302 / 649 546 357  
posta@kantuzale.net

zatoz kantari!

hitza



Amezketan mahoizko galtzekin eta alkandora txuriekin ateratzen dira eta Abaltzisketan berriz, ezkon-mantoi koloretsua eramaten dute soinean. N. URBIU

## Makil soinuen oihartzuna zabalduko da Txindokipean

**Inauteriak** » Amezketan bihar eta etzi izango dira talai dantzariak eta Abaltzisketan, berriz, bihar aterako dira txantxoak.

### INHOOA ALTUNA

Tolosako Inauteriak dira jaun eta jabe egun hauetan, baina neguaren amaiera iragartzeko baliatzen ziren jai ospetsu hauek herri askotan ospatzen dituzte, Abaltzisketan eta Amezketan esaterako. Txindokipean Inauteri edo Aratusteak bihar eta etzi ospatuko dituzte.

Abaltzisketan bihar bertan aterako dira txantxoak baserri base-ri dantzan. Amezketan berriz, bihar eta etzi izango dute talai dantzariak urteroko hitzordua. Aspalditik ospatzen dituzte dantzen bidez Inauteriak Txindokipeko bi herri hauek.

### Amezketan, gerra aurretik

Amezketarren kasuan, gerra aurretik ere baziren talai dantzariak. Gerra eta diktadura garaietan gala-

razita egon baziren ere, 1932az geroztik berriz dantzan omen dabil-za amezketarrak.

Amezketan talai dantzari andana bilduko da aurten ere, bai neskek eta baita mutilak ere. 09:00etan elkartuko dira plazan bai bihar eta baita etzi ere. Dantzarako prest, herrian giro bizia jartzeko gogotsu elkartuko dira.

### Talai dantzariak mahoizko galtzak eta alkandora txuria eramaten dituzte soinean

Abaltzisketarrek ez bezala, amezketarrek ez dute borla eta mantoi-rik eramaten. Talai dantzariak, mahoizko galtzak eta alkandora txuria eramaten dituzte soinean. Gerriko eta txapela beltzak, abarkak eta lepoko zapi koloretsuak eraman ohi dituzte inaute-jantzi bezala.

Bihar 10:30erako herriko eliza aurrean izango dira, elizatik ateratzen diren herritarrei Makila-Txi-

ki dantza eskaintzeko. Azken saioa Larraitz aldeko baserrietan egingo dute txantxoek, Larraizko ermitaren aurrean izango direlarik bertako meza ateratzen denerako. Eguerdian, bazkari ederra izango dute txantxoek goiz osoan egindako lanaren sari gisan.

Era berean, Zazpi-Iturri Elkar-teen kafe beroa hartu eta Talai-Dantza deituriko makil dantza bizia eginaz, puska biltzen ibiliko dira herriko gazteak baserri-zaserri. Aurten dantzari bat gutxiagorekin ariko dira.

Gogotsu emango diote makilei, ehunka kilometrotara entzun da-dint talaien oihartzuna. Bihar, talde batek Sakelatik abiatuta Ugarten dantzatuz, Zubillaga auzora joko du. Bigarren taldekoak, Petxunetik abiatuta, Zubillaga auzunean ibiliko dira dantzan. Zubillagako bidegurutzean bi taldeak elkartu eta herriko kaleak zeharkatuko dituzte talai dantzariak makil, trikita, pandero eta akordeoi doinuekin. Ergonen egingo dituzte azken dantzak igandeko saioari amaiera emateko.

Astelehenean berriz, goizean goiz plazan elkartu, bi taldetan banatu eta Bedaio eta Amezketako San Martin inguruko baserrietan ibiliko dira dantzan amezketar gazteak. Lehen taldea Ugartetik gorantz Larreta baserriera doan bitartean, bigarren taldea, Liola alde-tik gerturatuko da Larreta baserri-rra. Aipatu etxean amaituko dute

### Txantxoek galtza txuriak, txapel gorria, gorbata beltza eta ezkon-mantoi koloretsua eramaten dute

Talai dantzariak euren saioa. Bi egunez dantzan ibili ondoren, astelehen gauean afari ederra egingo dute sagardotegian.

### 1950. urtetik

Abaltzisketarren kasuan, txantxo-ak 1950. urte inguruan ere bazirela esaten dute herrian. Gerra ondoren, hala ere, galdu egin zen ohitura eta usadioaren garrantziaz due-lla 20 urte inguru jabetu ziren.

Bihar 08:00etarako, hain zuzen,

izango dira prest Abaltzisketan 8 dantzariak euren jantzi bitxiak soinean dituztela.

Txantxoek, alkandora eta galtza zuriak eramaten dituzte jantzita. Txapel gorria borla zuriekin buruan, gorbata beltza lepoan eta bi ezkon-mantoi koloretsu soinean. Dantzariak gain, soinujolea eta bi mozorro dira Abaltzisketako txantxo-oen ikur. Aurpegia beltzez mar-

### Abaltzisketako eta Amezketako doinua bera da, baina azken honetan arinago jotzen dute

### 'Talai' hitza makil kolpearen onomatopeiatik omen dator

goturik puska biltzen dute eta behar bada, baita lapurretan egin ere. Dantza egin aurretik, baserri atarian erratza pasatzea ere txantxo-oen lana izaten da. Urteroko ohiturari jarraituz, aurten ere, goizeko lehen orduetan Orendain aldean dauden baserriak zeharkatuko dituzte.

### Doinu berbera

Abaltzisketarren eta amezketar-reen dantza doinua berbera da, baina amezketarra askoz arinago da.

Talai dantzariak ere zortzi lagunek osatutako taldeak izaten dira -bi taldeetan banatzen dira norma-lean-. Abaltzisketan guztiak muti-lak diren bitartean, Amezketan emakumeek ere dantza egiten dute. Ustez, herritarren arabera, 1983an izan zen lehenengo aldiz emakumea dantzan.

Dantza berezi hau bi egurrezko makilekin dantzatzen da. Bi makilek elkar jotzearen jotzez, soinua sortzen dute.

Amezketarra den eta Inauteri-zalea den Koldo Saralegi aipatu izan duenez, *talai* hitza, makil kolpearen onomatopeia omen da izatzen. Gaur egun bi egunetan ospatzen badira ere Inauteriak Amezketan, garai batean luzeagoa omen zen Inauteri ospakizun hau. Izan ere, ostegunetik hasten omen zen inaute etorrera. Txantxoia ere ba omen zen garai hartan. Herriko umeak izutuaz, aurpegia beltzez margotuta zuela, etxeetan sartu eta lapurretan egiten omen zuen.

## Hilberriak

**EUSEBIO LARREA ESNAOLA**  
JAUNA  
-Golien bego-

Beti umoretsu beti alai  
ibiltzen ginen elkarrekin,  
gaur nahiz urrutiko egon  
oroitzen gara zurekin.

Zure bilobak: Asier, Manex, Uxue eta Eñaut.

Haren animaren alde otoiz bat eskatzen dizuet eta arren etor zaitzetzela GAUR LARUNBATA arratsaldeko 18:00ETAN ikaztegiak SAN LORENZO parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

**IKAZTEGIETAN**  
2010eko  
otsailaren 13an

Oharra: Gorpuztze beldu Tolosaldeko FUNERARIA VASCONGADA tanatorioan egingo da, gaur goizeko 08:30ak arte.

**FELIX KOMPAÑON SAEZ DE LA CUESTA**

Beti gurekin izango zara

Arrieta-Sudupe osaba-izebak eta lehengusuak

Oharra: Hileta Lantziegoko (Araba) parrokian izango da, 16:30ean

**AZPEITIA**  
2010eko otsailaren  
13a

Tolosaldeko eta Leitzaaldeko HITZA jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da hilberriak-urteurrenak-eskertzak

**HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

**G** **Gutunak**

**Euskaraz sinatzen ote dugu?**

Jendearen nortasuna, etxean sartzean eta ateratzean ezagutzen da, batez ere. Idatzi batean sartzean eta ateratzean, berdin.

Lehen esan nuen zerbait, zoriarekin batua sortu zenez geroztik ere mantendu den 'agur t'erd' horretako tittita edo eulikaka lotsagarriaz, izatekotan ere 'agur eta erdi' behar zuela iradokiz. Ez alferrik!

Baina tira, atzenez dena egiten dugu alferrik mundu honetan, eta ordukoan sarreraz bezala, gaur inteez ariko naiz alfer alferrik.

Nik, usarioz, idazki eta mezu guztiak argatiboan sinatzen ditut. Baina uka eta uka, euskal kazetari modernook beti kendu egiten didate euskal senak hain bere duen -k hori.

Azken bi testigu, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAN ateratakoak. Bila googlen «Ibero sutan, eta denak isilik» edo «Leitzak erosi ibero?! Ze, Gineserako?!» artikulua, eta leitu bidenabar, ikus nola sinaturik datozen.

Nik bietan neure '-k' garbi garbiarekin sinatu nuen ordea neure deitura.

Bai, gutuna, mezua, agindua, artikulua edo dena delakoa idazten duena, pertsona aktiboa da euskaraz.

Baita, txantxa, besarkada, edo musu soila internetez bidaltzen duena ere, aktiboa da euskaraz. Beraz, sina ditzagun geure eginak eta asmaok aktiboan edo erगतiboan, euskal senak eskatzen duen bezala. Ez baitu uste hau nire kapritxo hutsa denik, euskal usario jatorrak eskatzen duena baizik.

Eta oraindik euskal sen apur batez sinatzen ikasi ez badugu, zer nortasun agiri erakutsi deza-kegu munduan?

Esaiezue faborez euskaltzainei, estilo liburuak idatziko dituztenei, eta abarri... Baina ez aipatu nire izenik. Eta aktiboan bada gutxiago. Ez baitu deustarako balio euskal piraten merkantuan.

**Patziku Perurenak**, Nafarroako Basaburutik.

**@ Argazkiak.** TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK aurtengo Inauterietan ateratzen dituzuen argazkiak jaso nahi ditu. Bidaltzen dituzuen argazki guztiekin bilduma osatuko dugu eta webgunean izango dituzue ikusgai. Inauerietako lehen egunetan, gainera, eskualdea zurituta izan dugu eta argazki horiek ere jaso nahi ditugu. Bidali egun hauetan ateratzen dituzuen argazkiak [tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info) helbide elektronikora guztiok ikusi ahal izateko:  
[www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

# Udalak komun publikoetako erasoak salatu ditu

**Villabona** » Erasoak egin dituztenei arduraz jokatzeko eskatu die, horiek konpontzeko diru publikoa erabili behar dute eta.

**ERREDAKZIOA**

Villabonako Udalak, herritar guztiei irekitako komun publikoak zabaldu zituen, baina Udaletik bertatik salatu dutenez, «azkenaldian erasoak oso ohikoak izaten ari dira». «Eta eraso hauetan parte hartzen duten herrikideei gogoe-tarako gonbitea egin nahi genieke publikoki», gaineratu dute Udal arduradunek.

Villabonako Udalaren nahia eta gogoia beti izango da «herritarrei zerbitzu onak eta kalitatekoak eskaintzea, gero denen erantzukizua

na izan behar duelarik haiek ondo zaindu eta mantentzea».

Krisi ekonomikoak eragina gauden egoeran egonda, honelako gertaerak «diru publikoaren gas-tua modu ez egokian bideratzea» eramaten dituztela gogoratu dute Udalekoek. Baita ere zerbitzu hori «irekita mantendu behar ote den ala ez eztabaidatzea».

«Zilegi al da, zenbaitek bizikidetzarako oinarriko arauak hausten jarraitzen duten bitartean, gainerako herritarrek zerbitzu hori gabe utzi behar izatea?», galdetu dute Udal arduradunek. Villabonako Udalak gogoetarako deia egiten die, eraso hauetan parte hartzen dutenei eta villabonatarrei orokorrean. Erasoaren arduradunak nor diren ez jakitun izanik ere, haiek egindako kaltearen ordaintzaile izatea izango da justuen.



Gisa honetan topatu zuten komuna. HITZA

# Goma gaineko Euskadiko Txapelketa jokatu dute gaur

**Ibarra** » Ibarroko emakumeen azkenaurreko jardunaldia izango da; Iruritan jokatu dute, 17:00etatik aurrera.

**» SAILKAPENA**

**Emakumezkoen liga, 500 kilo**

Taldea	Puntuak
1. Badaiotz	4
2. Sakana	3
3. Beti Gazte	2
4. Ibarra	1

**ERREDAKZIOA**

Gomagaingeko Euskadiko Sokatira Txapelketa azkenekotan da. Izan ere, gaur, azkenaurreko saioa jokatu dute Iruritan (Nafarroa Garaia). Hain zuzen ere, 500 eta 560 kiloko azkenaurreko jardunaldia jokatu dute emakumezko eta gizonetakoan, 17:00etatik aurrera. Gaur zortzi, berriz, amaitu egingo da Txapelketa.

Ibarroko taldea ariko da lehian bertan. Emakumezkoetan Badaiotz (Gasteiz, Araba), Beti Gazte (Lesaka, Nafarroa Garaia) eta Sakana (Arbizu, Nafarroa) taldeak izango dituzte aurkari bezala.

Pasa den asteburuko jardunaldian, Sakanak eta Beti Gazte jokatu zuten lehen jardunaldiko lehen

txanda, eta hortxe erabaki zen hein handi batean jardunaldiko bigarren postua. Izan ere, Badaiotzek nagusitasunez irabazi zituen jokaturiko hiru txandak. Nafarren arteko lehian, Sakanak irabazi zituen bi tiraldiak. Ibarroko neskek, aldiz, ez zuten lortu tiraldirik irabaztea.

Hala ibartarrak sailkapeneko azken postuan daude, puntu baka-rrarekin. Lehen sailkatua Badaiotz (Gasteiz, Araba) talde arabarra da, 4 punturekin. Sakanakoak dira bigarren, 3 punturekin eta hirugarrenen postuan Beti Gazte taldea dago, 2 punturekin.

# Duela 28 urteko bi hilketa egozten dizkiote Jose Antonio Zurutuzari

**Tolosa** » Espainiako Auzitegi Nazionalen tolosarraren aurkako epaiketa hasi zuten herenegun.

**Nazioarteko agindua**

Jose Antonio Zurutuzara Sarasola Tolosan jaio zen 1961ean, eta Ibarrran bizi zuen hainbat urtez.

Zurutuzara 2002ko urrian atxilotu zuten Olabe enpresaren aurkako polizia operazioan. Enpresa horrek ETA diruz laguntzen zuela eta bertako hainbat langile atxilotu zituzten, egun batzuk beranduago aske geratu zirelarik.

2004an berriz ere atxilotu zuten Frantziako Polizia Judizialak Biri-tun bere aurkako nazioarteko atxiloteta agindu zutelako. Jose Antonio Zurutuzara 2007. urtean Espainiaratu zuten.

**ERREDAKZIOA**

Espainiako Auzitegi Nazionalen herenegun hasi zen Jose Antonio Zurutuzaren aurkako epaiketa. Fiskalak 30 urteko kartzela zigorra eskatzen du tolosarrentzat. 1982. urteko bi erailketengatik ari dira epaitzen Zurutuzara. Tolosarrak gertaerak ukatu zituen.

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

**Publizitate enpresa batek lan poltsa osatzeko KOMERTZIALAK behar ditu**

**Eskaintzen da:**

- Etorkizuneko proiektu batean parte hartzeko aukera.
- Baldintza interesgarriak.

**Eskatzen da:**

- Euskaraz jakitea ezinbestekoa da.
- Iazera dinamikoa izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Autoa izatea.
- Komertzial arloan esperientzia izatea.

**Kontuan hartuko da:**

- Publizitate komertzial lanetan eskarmentua izatea.
- Gipuzkoa eta Bizkaiko txokoak ongi ezagutzea.

Curriculum Vitae zehatza bidali [gizabaliabideak@jarduna.net](mailto:gizabaliabideak@jarduna.net) POSTA ELEKTRONIKORA



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarralea:** 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko ideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdia

■ **Anoeta.** Soka-dantza eguna ospatu zuten pasa den larunbatean eta orain egunaren balorazioa egiteko unea ere iritsi da. Horretarako hilaren 17an bilduko dira 19:00etan udaletxean. Antolatzaileek egunean parte hartu zuten guztiak zein herritarrek gonbidatzen dituzte bileran parte hartzera.

### Inauteriak, gaurko egitaraua

■ **Tolosa.** 10:30ean erraldoi eta buruhandien konpartsaren irteera; 11:30ean Kabi-Alai elkarteko txarangaren irteera; 11:45ean dantzari txikien kalejira; 17:00etan haur danborrada; 17:00etan Kabi-Alai elkarteko txarangaren irteera; 19:00etan danborradaren irteera; 23:00etan Iraunkorrek eta Oriako txaranga kalez kale. Txosnagunean 18:00etan txokolatada.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943-65 46 10.  
■ **Leitza.** Campos M. Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



# Txistu derbya giroa berotzen saiatzeko

Egun lasaia izan zen atzokoa, Ostiral Mehea. Ostegun Gizeneko gehiegikeriak pasata jende gutxi ibili ohi da kalean egun honetan, baina Ozenki txistu taldeak Inauteriak hasi besterik ez dirrela egin agerian utzi zuen atzokoa. Ozenkikoak Eduardo Mokoroa udal musika eskolako txistu ikasleak dira, baina Inauterietan izena aldatu dute. Musika Eskolatik ir-

tenda Realzalez eta Athletic-zalez jantzita kalejiran atera ziren eta giroa berotzen saiatu ziren, nahiz eta ez zuten egiteko erreza izan. Bigarren irudian ikusi daitekeen bezala, gutxi izan ziren atzo kalera ateratzeko gogoan izan zutenak, hotza eta elurra erengatik izango zen agian. Seguru gaurkoan jende gehiago bilduko dela Tolosako kaleetan. I. GARCIA-N. LATASURU

## G Garraio Publikoa GAUR

### » RENFE, GAUEKO ZERBITZUA

■ Brinkolatik 22:50ean aterako da tren eta Tolosara 23:30ean iritsiko da.  
■ Iruneko norabidean 01:00etan, 03:00etan eta 05:00etan egongo dira trenak (ez dira Apeaderoan gelditzen).

### » TSST

**23:00etatik 04:00etara Orduro.**  
■ ASTEASU - Zizurkil - Villabona - Irura - TOLOSA (Santa Klara)  
**23:30etik 04:30era. Orduro.**  
■ TOLOSA (Santa Klara) - Anoeta - Irura - Villabona - Zizurkil - ASTEASU.

### » TOLOSALDEA BUS

■ **00:00-02:00-03:30.** TOLOSA (Zumardi Txiki) - Amarotz - Ikaztegieta - Alegia - Ametzeta - TOLOSA.  
■ **01:00-02:45-04:15.** TOLOSA (Zumardi Txiki) - Amarotz - Ibarra - Berrobi - Eldua - Elduain - BERASTEGI.

## A Agurrak

**agurrak** urtebetetzeak - urrezko ezteiak ezkontzak - jaioberriak jaunartzeak...

Mesedez, **ekarri argakia bi egun lehenago ondoko leku hauekako batera. Mila esker.**

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletzeko bulegoa

bertako egunkaria  
egin zaitez harpidedun!

**902-82 02 01**

(Astegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

[www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

eraman/bidali izen-emate orria:  
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa  
Herriko plaza 1 • 31180 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak: \_\_\_\_\_ • N.A.: \_\_\_\_\_

• Lanbidea: \_\_\_\_\_ • Jaioteguna: \_\_\_\_\_

• Helbidea: \_\_\_\_\_ • Herria: \_\_\_\_\_

• P.K.: \_\_\_\_\_ • Tel.: \_\_\_\_\_

• Posta elektronikoa: \_\_\_\_\_

• Kontu zenbakia: \_\_\_\_\_